



## ❖ ERRUGBIA

**Hernanik 25-27 irabazi zuen Bartzelonan, eta partidurik galdu gabe jarraitzen du**

Hernaniko senior taldeak Katalunian jokatu zuen atzo, Bartzelonaren kontra, eta 25-27 irabazi zuen. Partidua zaila izan zen, zelaia zuen egoerak eragina izan baitzuen. Horrez gain, gogorra ere izan zen, Bartzelonakoek gogor jokatu baitzuten. Rafa Larretxeak esandakoa araberan, Hernaniko 3-4 jokalariek lesionatu ziren atzokoan. Partiduaren ostean, Hernaniarrek lider jarraitzen dute, 40 punturekin, partidurik galdu gabe. Bigarren Bartzelona doa, 36 punturekin, eta partidu bat gehiago jokatuta.

Datorren igandean Landaren jokatuko dute, BUC taldearen kontra, urtarriaren 10ean bertan behera geratu zen partidua. ||

## ❖ SANTA AGEDA

**Biterin entsaioa gaur arratsaldean**

Santa Ageda bezperan, Santaeskean aterako dira, eta gaur entsaioa izango da, Biterin, 20:00etan. ||

**Entsaioa izango da gaur Ereñotzun**

Santa Agedako entsaioa izango da gaur Ereñotzuko Ur Mia elkartearen, gaueko 21:00etan. ||

## ❖ BIDE EMANALDIA

**Hernaniren inguruko bideo turistikoa emango dute gaur**

Hernaniri buruzko bideo turistikoa jarriko dute gaur Biteri kultur etxean. Emanaldia arratsaldeko 19:00etan izango da, eta Hernaniko Udalak antolatu du. ||

## Erraldoi eta buruhaundien konpartsa omenduz hasiko dira Inauteriak

Inauterien hasiera ofiziala otsailaren 12an izango da, eta 16ra arte luzatuko dira. Aldez aurretik, Kaldereroak ospatuko dira Hernanin. Elur-Txori elkarteak antolatzen du konpartsa, eta larunbatean aterako dira, gaueko 21:00etan.

MOZORROAK prestatzen hasteko garaia iritsi da. Otsailaren 12tik 16ra Inauteriak ospatuko dira Hernanin, eta danetariko mozorroek jantziko dituzte herriko kaleak: pailazoen, mexikarrek... Ostiral argalarekin hasiko dira, eta Sardinaren ehorzketarekin amaitu.

Hala ere, festa giroaz lehenago gozaten hasteko aukera izango da, larunbatean Kaldereroak ospatuko baitira herrian. Igandean berriz, Urumea ikastolako Iñude eta Artzainak konpartsa ibiliko da herriko kaleetan barrena, 12:00etan hasita.

### Bost egunetako festa

Geroz eta indar haundiagoa ari dira hartzen Inauteriak Hernanin, eta aurten ere, bost egunetako festa antolatu dute.

Kaldereroen entsaioak bihar asteazkenean eta ostegunean izango dira, elkartearen, 20:00etan.

Jaien hasieran omenaldia egingo diote Erraldoi eta Buruhaundien konpartsa, 15:15etan, eta egun berean, arratsaldean, eusko diskoteka izango da Plaza berrin.

Larunbatean izango dira besteak beste, Azeri dantza, haurrentzako ekitaldiak eta mozorro festa.

Egun haundia igandean izango da, konpartsen irteerarekin. Urbieta kaletik aterako dira, 12:00etan.

Astelehenerako berriz, egun lasaiagoa antolatu dute: haurrentzako ekitaldiak eta musika izango dira nagusi.

Igandean Urumea ikastolako Iñude eta Artzainak konpartsa aterako da, 12:00etan.

Azkenik, asteartean, Sardinaren ehorzketak izango da Plazan. Jaiei amaiera emateko ekitaldia izango da, eta arratsaldeko 18:30etan hasiko da.

**Kaldereroak larunbatean** Elur Txori elkarteak kideek urteroko ohiturari eutsi, eta Kaldereroen konpartsa irteera antolatu dute aurten ere. Larunbatean aterako dira, gaueko 21:00etan. Aldez aurretik, Elur Txori elkartearen bertan elkartzeko dira, afaltzeko. Afaria arratsaldeko 19:30etan izango da. ||

## Gazte Asanbladak larunbatean ospatuko ditu Inauteriak

Hernaniko Gazte Asanbladak ere festa eguna antolatu du Inauterietarako.

Otsailaren 13an izango da, larunbata. Eguerdiko 12:00etan Ginkana izango da Tilosetan, eta ondoren, 14:00etan, bazkaria Tilosetan. Bazkalostean berriz, poteoa egingo dute Elektro txarangarekin. Jakinarazi dutenez, txartelak salgai daude betiko tokian, 10 euroan. Egunean bertan 12an salduko dira.

### ► Inauterietako egitaraua

#### OTSAILAK 12, OSTIRALA

**15:15:** Inauterien hasiera ofiziala. *Erraldoi eta buruhaundiei* omenaldia. Eskoletako umeen irteera.

**17:00:** Erraldoi eta buruhaundiak, *Kriskitiña* dantza taldea eta `Hernani` Musika Eskolako dultzaineroak.

**17:30:** Eusko diskoteka Plaza Berrin.

**21:00:** Pilota partiduak *VII Berria txapelketa*. Kiroldegian.

#### OTSAILAK 13, LARUNBATA

**10:00:** Azeri dantza.

**11:00:** *Betikoak* txaranga.

**11:30:** Haurrentzako poniak eta zezen txikiak Latsunben.

**12:00:** *Patxi eta konpainia* trikitilarien irteera.

**13:00:** Erraldoi eta buruhaundiak eta *Kriskitiña* dantza taldea.

**17:00:** Haurrentzako emanaldia *Hipo eta Tomax* taldearekin, Atsegindegian.

**18:00:** *Betikoak* txaranga.

**19:00:** Mozorro festa gazte-txoentzat Atsegindegian.

**00:00:** *Betikoak* txaranga.

#### OTSAILAK 14, IGANDEA

**11:00:** *Betikoak* txaranga.

**12:00:** Konpartsen irteera

Urbieta kaletik: Ttarla dantza taldea, La Inmaculada ikastetxea eta Elizatxo ikastola.

**18:00:** *Betikoak* txaranga.

**17:00:** Haurrentzako emanaldia *Txintxilixin, bakea egin, Kiki, Koko eta Mokorekin*. Atsegindegian.

**18:30:** *Fermin Valenciaren* emanaldia Plaza Berrin.

**19:30:** Hernani Musika Eskola Publikoko trikitilari eta dultzaineroak.

#### OTSAILAK 15, ASTELEHENA

**09:00:** Diana Hernani Musika Eskolako ikasleekin.

**10:00:** Azeri dantza gazte-txoentzat.

**11:30:** Haurrentzako poniak eta zezen txikiak Latsunben.

**12:00:** Haurrentzako tailerak: makillajea eta kareta *Jakin eta jolas* taldearekin. Atsegindegian

**16:00:** Erraldoi eta buruhaundiak, *Kriskitiña* dantza taldea eta `Hernani` Musika Eskolako dultzaineroak.

**17:00:** Haurrentzako dantzaldia Gramola *Txorromorro* taldearekin, Atsegindegian.

**18:00:** Break dantza-Scratch erakustaldia Tilosetan.

#### OTSAILAK 16, ASTEARTEA

**18:30:** Sardinaren ehorzketak.

### Inmakulada Ikastetxea

direccion@lainmaculadahernani.com 943 550233 Sandiusterrri, 4

#### MATRIKULAZIO EPEA

Otsailaren 1etik 12ra

#### ESKOLA BISTATZEKO ORDUTEGLA

Irakasleekin egoteko 12:00-13:00

16:00-17:00

Idazkaritza 9:00-13:00

14:00-17:00

#### HEZKUNTZA ESKAINITZA

Haur eskola 0-3 urte

Haur hezkuntza 3-6 urte

Lehen hezkuntza 6-12 urte

Bigarren hezkuntza 12-16 urte

Erizain laguntzailea EMHZ.

#### OSTE ZERBITZUAK

Jangela zerbitzua

Zaintza goiztiarra 8:00-9:00

www.lainmaculadahernani.com

## OINDI



taberna

NAGUSIA, 25

HERNANI

943 557 509



## RUFINO

SAGARDO NATURALA

Irekita otsailaren 2tik martxoaren 29ra arte

Asteartetik larunbatera gauez

943 55 27 39

JAVIER ANSORENA - Akarregi Baserria - HERNANI -

**TELEFONOAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauz:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA**  
**GAUR** Egoerak egonkortzera egingo du. Bustitik hasiko da eguna, baina orduak aurrera egin ahala, ateru-neak izango dira. Termometroak gora egingo du, 3-4°C.

**BIHAR** Eguzkiaren presentziarekin, nabermen egingo du hobera. Eguna hotz hasiko da, baina eguzkiak giroa epelduko du. 10-12°C izango dira. (euskaime)

## ❖ DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA - BATERATZE PROZESUA

# Urumea, Elizatxo eta Langile ikastoletako gurasoen bilera izango da etzi Biterin

Bileran DBHko hiru ikastolen fusioa aztertuko dute. Deialdia Langile ikastolako 6garren mailako gurasoek egin dute.

ETZI bilera izango dute Urumea, Elizatxo eta Langile ikastoletako gurasoek. Bileran Biteri kultur etxean izango da, arratsaldeko 19:00etan. Bertan, hitz egingo dute DBHko hiru ikastolen fusioaren inguruan.

Bilera deialdia Langile ikastolako 6garren mailako gurasoek egin dute, eta helburu dute beste ikastoletako

gurasoen irizia ezagutzea: «beste ikastoletako gurasoen iritzia jasotzea ezinbesteko jo dugu. Bileraren helburuak dira, elkarren berri izatea, izan daitezkeen iritzi ezberdinak aztertzea eta elkar ezagutzea».

**DBHko hiru ikastolen fusioa aztergai**  
Bilerako gai nagusia DBH-

ko hiru ikastolen fusioa izango da.

Langile ikastolako gurasoek Kronikara bidalitako prentsa oharrean adierazitakoaren arabera, Gipuzkoako Hezkuntza Delegazioko hiru kide aste honetan bildu dira ikastoletako zuzendaritza eta gurasoekin, gaia aztertzeko. Horren ondotik antolatu dute bilera. ||

## ➔ Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

### Desmodium adscendens Maitasun hotz

Behin, mediku frantses batzuk Afrikako bihotzera joan ziren, laguntze aldera. Bere egitekoa bukatzean, tribu hartako etxizero zaharrak: "bihotz-bihotzez lagundu diguzue zuek; nik ere onetik onena emango dizuet, bihotz-bihotzez". Ez zen kakaoa, ez ebanoa, ez marfila, ez eta diamantea ere. Zer izango, eta...? "landare bat da: magia egiten du osasun kontuetan".

Hala etorri zitzaigun, mediku frantses haien eskutik, Desmodium adscendens landarea Europara, Afrikako bihotzetik ekarria. Gaur egun, mediku europarrek desmodiuma erabili ohi dute:

gibela garbitzeko, birrikak irekitzeko, hesteak libratzeko, giharrak deskantsatzeko... Amazoniako indioek, emazteetan, bihotza berotzeko erabiltzen dute, hoztuta badute (hortik izena: maitasun hotz). Ni neu ere zorretan nago etxizero jaunarekin (gure garai bateko sorgina: sortzen duena?): desmodiuma hartuz, irabazi egin dut osasunez; eta, orain, "adiktoa" naiz.

Gainera, haietako mediku batek gaixoen elkarre bat sortu du, desmodiuma Afrikako bihotzetik ekarri, eta gurean banatzeko. Horiek dira "negozio" onak: bi aldeek berdin irabazten dute, inork inor menderatu gabe; eta, betiere, nori bere kultura eta sinesmenak errespetatu-

rik. Eta dena osasunaren alde ("osasuna izanez gero, akaso, zerbait egingo dugu; osasunik gabe...?").

Egun on batean, era honetako elkarrizketa ez zaigu hain arraro egingo: "nora zoaz, oporretan?" Eta besteak "mutil-lagunaren herrira: Senegalera". Motor berak eragiten die adiskidetasunari eta amodioari, muga guztien gainetik (buruan dauzkagun mugak dira handienak). Bihotza dugu motor hori. Bihotza beratuta badugu, munduak aurrera jo ohi du, taupadaz taupada. Eta, gogor dugunean, berriz, unibertsoa ere gelditzen da hilotz, bihotzekoak jota: odola sobera, maitasuna falta.

Jexux Eizagirre Portillo

## ◆ GIMNASIA ERRITMIKOA



### Hernaniko gimnastek kurtso hasierako erakustaldia eman zuten atzo

HERNANIKO Gimnasia erritmiko elkarteak antolatuta, kurtso hasierako erakustaldia izan zen atzo kiroldogian.

Hernaniko 25 taldek hartu zuten parte erakustaldian, epaimahai, guraso eta lagun aurrean. Haurz gain, gonbi-

datu berezia ere izan zen atzokoan, Karmelo Labaka ikastetxeko gimnasia taldea.

Hernaniko Gimnasia Erritmiko elkarteak 120 gimnasta inguruz dago osatuta eta atzokoan 10 urtetik gorakoek hartu zuten parte. ||

## ◆ BOLEIBOLA

### Emaitza gazi-goza atzo

Hernaniko boleibol taldeek emaitza gazi-goza lortu zituzten atzo. Nesken taldeak 3-2 irabazi zuen Navarvoley-en kontra. Eta mutilen taldeak berriz, 0-3 galdu zuen Universidad de la Riojaren kontra. ||

## ◆ SASKIBALDIA

### Teklan Hernanik 61-64 galdu zuen

Teklan Hernani senior taldeak 61-64 galdu zuen atzo Kostkas taldearen kontra. ||

## Atez ateko zalantzak argitzen

Zenbatekoa da errauste-planta baten biziraupena?

Batazbeste, 20-25 urtekoa.

Bidali zure galdera helbide honetara: [info@hernaniatezate.net](mailto:info@hernaniatezate.net)  
Galde-erantzun guztiak webgunean: [www.hernaniatezate.net](http://www.hernaniatezate.net)



## ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pisu baten bila nabil alokaituan (abala), 2 logela. Deitu: 608 671 844.

Pisua salgai Karabelen. 60m2, 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.

Pianoa salgai. Yamaha U1F modeloa, bigarren eskukoa. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma birbrazzailea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76  
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

## KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		SASKIBALDIA			
E. Ohorezko Maila	Hernani-Hondarribia	0-0	Seniorrak	Hernani-Kostkas	61-64
L. Erregionala	Hernani-Mondragon	2-1	Kadeteak	Hernani-Loiola-Indautxu	63-67
Jubenila. L. nazionala.	Durango-Hernani	1-1	Kadeteak	Hernani-Ganbara	57-37
Jubenila. L. maila.	Mundarro-Hernani	2-3	<b>BOLEIBOLA</b>		
Jubenila. L. maila.	Kostkas-Hernani	7-2	Seniorrak neskak	Hernani-Navarvoley	3-2
Jubenila. L. maila.	Hernani-Amara Berri	2-3	Seniorrak mutilak	Hernani-U. de la Rioja	0-3
Kadeteak. O. maila	Mundarro-Hernani	2-0	<b>ERRUGBIA</b>		
Infantilak	Antiguoko-Hernani	3-1	Seniorrak	Bartzelona-Hernani	25-27
Infantil Txiki	Tolosa-Hernani	9-1	<b>ARETO FUTBOLA</b>		
Emak. liga. Igoera	Hernani-Beasain	3-0	1. maila	Yone Boutique-Gorka pintur.	3-3
Emakumezkoen liga	Hernani-Anaitasuna	2-1	2. maila	Aratz-Aidur	3-1